

NOTA DE PRENSA

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS


UPN da Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan boto gehien jaso duen indarra, eta 15 eserleku eskuratu ditu; bigarren indarra Geroa Bai izan da (9), eta ondoren EH Bildu (8), Podemos-Ahal dugu (7), PSN (7), PPN (2) eta I-E (2)*Botoen %99,27 zenbatuta dagoelarik*

Domingo, 24 de mayo de 2015

Botoen % 99,27 zenbatuta, Unión del Pueblo Navarro (UPN) izan da Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan boto gehien jaso duen indarra, %27,30eko babes, beraz, eta 15 ordezkari legebiltzarrean; haren atzetik, Geroa Baik 9 parlamentari lortu ditu (%15,86ko babes); EH Bilduk 8 (%14,30); Podemos-Ahal duguk 7 (%13,71); PSN-PSOEk 7 (%13,43); PPNk 2 (%3,91) eta Izquierda-Ezkerrak 2 (%3,71).

Bestalde, indar hauek ez dute ordezkaririk lortu Parlamentuan: Ciudadanos, Partido Animalista Contra el Maltrato Animal (PACMA), Equo, Unión Progreso y Democracia, Representación Cannábica de Navarra-Nafarroako Ordezkaritza Kanabikoa (RCN-NOK), Libertad Navarra (LN) eta Solidaridad y Autogestión Internacionalista (SAIN).

Emaitzak ez dira behin betikoak izanen asteazkenera arte, orduan gehituko baitira atzerrian bizi eta bota ematea eskatu duten nafarren 1.226 bozak.



Parte-hartzea %71,37koa izan da (338.741 boto-emaile), 2011n baino 3,88 puntu handiagoa, eta abstentzioa, berriz, %28,63koa (135.880).